



PRENTSA-OHARRA

Euskal Herriko berrogeita hamar enpresak euskal produktuen kalitatea eramango dute Bartzelonako Alimentaria azokara

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila Euskadiko produktuen bitartez egongo da Alimentaria azokan (Bartzelona, martxoak 26-29)

Programatutako ekintzen artean Eusko Label produktuen sareko dendaren aurkezpena, eta Txakolin nahiz Arabar Errioxako ardoen dastatzeak nabarmendu behar dira

Euskal Herriko produktuen kalitatea izango da berriz ere protagonista Euskadik 2012ko Alimentaria azokan izango duen presentzian; hemeretzigarren edizioa izango du aurten elikagai eta edarien nazioarteko azokak, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburu Pilar Unzalu izango da inaugurazioan,

Euskadiko berrogeita hamar enpresa inguru bilduko dira Eusko Jaurlaritzak sustatutako 1300 m²-ko espazioan, Bartzelonako Azokako Gran Viako hiru kokalekuetan; hain zuzen ere, 2, 3, eta 7 pabiloietan.

Bisitari profesionalak sustapen-ekintza zehaztetara joateko aukera edukiko du, Erkidegoen pabiloiko (2 pabiloia) Eusko Jaurlaritzaren erakusmahaietan egingo diren **15 minutuko ZUZENKO SUKALDARITZA ERAKUSTALDIETARA**, adibidez. Sukaldari profesionalak **hainbat errezeta prestatuko dituzte, pintxo errazak eta plater elaboratuak, lehengai ezaugarri komun moduan hartuta.**

Horrez gainera, **ARDOAREN GALERIA** egongo da 3 pabiloiko Euskadiren erakusmahaietan, eta bisitariak **ikusgai dauden upategietako Arabar Errioxako ardoak, txakolina eta sagardo naturala** dastatu ahal izango ditu. Sommelier bat egongo da bertan.

Sukaldaritza eskaintza oso zabala izango da; elikadura sektore guztiak egongo dira, eta aurkezpen askotarikoak egingo, produktu naturalenak eta IV eta V gametako produktu paketatuenak, besteren artean.

Alimentaria profesionalentzako azoka da, munduko elikadura eta edari azoka garrantzitsuenetako bat. Hori diote nazioarteko elikagai industria, merkataritza eta banaketa eragile nagusiek. Azokarekin batera, jarduera paralelo ugari



egingo dira; biltzarrak, hitzaldiak, tailerrak, mintegiak, sukaldaritza erakustaldiak (show cooking), foroak, esperimentazio-guneak, dastatzeak eta abar...

Dastatze komentatuak eta aurkezpenak

Intervin Pabiloian, Ardoaren Galeriarik eskainitakoan, hainbat dastatzen eta aurkezpen egingo dituzte ardogintzako adituek, VEREMA Taldeak eta Mikel Garaizabal adituak, besteak beste.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak dastatze komentatua sustatuko du Guillermo Castaños enologoarekin.

Hainbat upategik euren ekoizpen, urtabe eta etiketa berriak aurkeztuko dituzte.

Eta artisau garagardoa egiten hasi den enpresa batek produktu hori aurkeztuko du egun horietan.

ZER. EUSKADI Bartzelonako 2012ko Alimentaria azokan egongo da

NOIZ. Martxoak 26-29.

NON. Bartzelonako Azoka Esparrua, FIRA BARCELONA.

2 Pabiloia – *Erkidegoak* – D130 eta E130 erakusmahaiak

3 Pabiloia – *Intervin* – B50 eta C50 erakusmahaiak

7 Pabiloia – *Interpesca* – D55 eta D50 erakusmahaiak

PROGRAMATUTAKO EKINTZAK

Astelehena, martxoak 26

- ✓ Dastatze komentatua –Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea. **3 Pabiloia, INTERVIN: B50 - C50 erakusmahaiak, 17:00.**

Asteartea, martxoak 27

- ✓ Verema Taldeak zuzendutako dastatzea. Arabar Errioxako ardoen idiosinkrasia. Erreserbako ardo beltzak. **3 Pabiloia, INTERVIN: B50-C50 erakusmahaiak, 13:00.**
- ✓ Ostatu Upategien etiketa berriaren aurkezpena. **3 Pabiloia, INTERVIN: B50-C50 erakusmahaiak, 15:00.**
- ✓ Vgnosterren garagardo gastronomikoen aurkezpena. **3 Pabiloia, INTERVIN: B50-C50, erakusmahaiak, 16:30.**

Asteazkena, martxoak 28

- ✓ Itsasmendi Upategien Artizar Txakolinaren aurkezpena. **3 Pabiloia, INTERVIN: B50-C50 erakusmahaiak, 11:00.**



- ✓ Mikel Garaizabalek zuzendutako dastatzea. Arabar Errioxako ardoen azken hamarkadako urtabe bikainak. **3 Pabiloia, INTERVIN: B50-C50 erakusmahaiak, 13:00.**
- ✓ Mikel Garaizabalek zuzendutako dastatzea. Txakolinaren aurrerapenak. Teknologia eta Tradizioa. **3 Pabiloia, INTERVIN: B50-C50 erakusmahaiak, 16:00.**

Intervineko Ardo Galeria eta Erkidegoetako Sukaldaritza Erakustaldiak etengabeko ekintzak izango dira azokak iraun bitartean.

ERANSKINA: Parte hartuko duten Euskal Elikadura Industriako enpresak

ERKIDEGOETAKO PABILOIA- 2 PAB.- D130-E130		
HAZI Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Eusko Jaurlaritzaren Korporazioa- EUSKO LABEL	www.euskolabel.net	Eusko Label kalitateko produktuak
CONSERVAS OLASAGASTI	www.olasagasti.es	Hegaluzea, atuna, berdela, Kantauriko antxoak
VASCOLAC	www.vascolac.com	Idiazabal gazta, gazta freskoa, nahaste-gazta, kefirra
SAL DE AÑANA/ AÑANAKO GATZA	www.saldeanana.com	Gatz minerala, gatz-lorea, gatz likido minerala, ardo gatz-lorea, ardo-gatza
TXOGITXU	www.txogitxu.com	Behi-haragizko produktuak
CORPA	www.corpa.es	Itsaski-gutuziak, txipiroi-kroketak, nekora beteak, antxoa-gurina, izokin ketu gurina, bokartak olio-ozpinetan, krabarroka-pastela
GORROTXATEGI	www.gorrotxategi.com	Pastak. Txokolateak eta turroiak
CASA ECEIZA	www.casaeceiza.com	Postre izoztuak, teilak, zigarrotxoak, gailetak, gozogintzako produktuak
CASA BRIGITTE	www.casabrigitte.com	Postre izoztuak, teilak, zigarrotxoak, gailetak, gozogintzako produktuak
DELICASS	www.delicass.com	Ahate-produktuak, ahate freskoa, erdi-kontserbak, kontserbak, foie gras-a, foie-blokea, pateak eta abar.
LA MUTRIKUARRA	www.lamutrikuarra.com	Antxoa-xerrak oliotan eta gatzetan
LURLAN	www.lurlan.org	Eusko Label produktuak, sor-markakoak, Idiazabal gazta eta ardoak, besteak beste, nekazaritza ekologikoko produktuak, jatorrizko produktuak eta gourmet produktuak
AMEZTOI	www.ameztoi.com	Kroketak, enpanadak, kurruskariak, zopak, lasagnak, arrainak, haragiak, postreak



INTERVIN PABILOIA-3 PAB.- B50-C50		
BODEGAS ESTRAUNZA	www.bodegasestraunza.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
BODEGAS COVILA	www.covila.es	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
OSTATU	www.ostatu.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
SEÑORIO DE ARANA,	www.senoriodearana.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
HEREDAD UGARTE	www.egurenuGARTE.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
BODEGAS HEREDAD DE ADUNA	www.heredadaduna.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
C.R.D.O. GETARIAKO TXAKOLINA	www.getariakotxakolina.com	Getariako Txakolina sor-markako txakolina
TXAKOLI TXOMIN ETXANIZ	www.txominetxaniz.com	Getariako Txakolina sor-markako txakolina
TXAKOLI TALAI BERRI	www.talaiberri.com	Getariako Txakolina sor-markako txakolina
BODEGAS ITSASMENDI	www.bodegasitsasmendi.com	Bizkaiko Txakolina sor-markako txakolina
ARABARTE	www.arabarte.es	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
LUBERRI MONJE AMESTOY	www.luberri.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
BODEGAS MURIEL	www.bodegasmuriel.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
BODEGAS EGUIA	www.bodegasmuriel.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
ALTÚN	www.bodegasaltun.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
BODEGAS DIOSARES		ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
BODEGAS ZUGOBER	www.zugober.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
SAIZAR	www.sidrassaizar.com	Sagardo naturala
ARTUKE BODEGAS Y VIÑEDOS	www.artuke.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
VGNOSTER BREWERY	www.vgnoster.com	VGNOSTER GOLDEN ALE; VGNOSTER COPPER ALE; VGNOSTER QUERCUS ALE
BODEGAS GOMEZ DE SEGURA	www.gomezdesegura.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA/ ASOCIACIÓN DE SIDRA NATURAL DE GIPUZKOA	www.sagardotegiak.com	Sagardoa – Sagardo naturala
ASOCIACIÓN DE BODEGAS DE RIOJA ALAVESA – ABRA	www.riojalavesa.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)



BODEGAS MARQUES DE VITORIA	www.marquesdevitoria.com	ERRIOXA sor-marka kalifikatuko ardoak (Arabar Errioxa)
----------------------------	--	--

INTERPESCA PABILOIA- 7 PAB.-D50-D55		
ARROYABE- CONSERVAS LA GAVIOTA	www.arroyabe.es	Arrain-kontserbak: hegaluzea, atun argia, antxoak eta 'arroyabito'ak
CUSUMANO	www.cusumano.es	Hegaluzea, atun argia
NORTINDAL SEA PRODUCTS, S.L.	www.nortindal.com	Txipiroi tinta, txipiroi saltsa, paella-saltsa, saltsa berdea, itsaski-salda, gulak
SALICA	www.salica.es	Hegaluze kontserbak, atun argia, Kantauriko antxoak, Galiziako ibaietako espezialitateak, produktu izoztuak, aurrez prestatutako atuna/hegaluzea, hegaluzea
BACALAO ALKORTA	www.bacalaosalkorta.com	Bakailao gezatua, bakailao izoztua, bakailao gazitua, bakailao prestatua, olagarro egosia
CONSERVAS SERRATS	www.serrats.com	Hegaluzea, atun argia, mejiloiak, sardinatxoak, antxoak-xerrak
CONSERVAS ZALLO	www.zallo.com	Arrai kontserbak eta erdi-kontserbak
CONSERVAS ORTIZ,	www.conservasortiz.com	Hegaluzea, atun argia, antxoak, sardinak, berdel frijitua, arrautzak
CONSERVAS OHITURA	www.conservasohitura.com	Arrain-kontserbak
MARKA BERMATUAK: KANTAUURIKO HEGALUZEA ETA ANTXOAK (EUSKAL HERRIA)	www.conserverosartesanos.com	Antxoak-kontserbak eta hegaluze-kontserbak